PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, AHOLKULARITZA ETA IDAZKARITZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO, LAN ESPARRUAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ETA BIZITZA PERTSONALA, FAMILIA ETA LANA UZTARTZEKO KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDERAKO POLITIKAK BULTZATZEKO EKIMENAK EGITEKO

1.- SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoak, legealdirako gobernu ekintzaren lidergorako tresna nagusi gisa sortutakoak, Etorkizuna Eraikiz ekimena onartzen du bere apustu nagusitzat, bai Gipuzkoaren erronkei eta sortzen ari diren beharrei erantzuteko bai lurraldearen etorkizunaren eraikuntza partekatuari ekiteko.

Izan ere, Etorkizuna Eraikiz elkarlaneko gobernantza irekia ulertzeko eta ezartzeko modua da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu nahi duena «politika egiteko» modu berri bat aplikatzeko. Gobernantza eredu hori guztiz bat dator «Gipuzkoa ereduarekin», eta eredu hori indartzea da, hain zuzen ere, 2020-2023 Plan Estrategikoaren erronketako bat. Horretarako, Planak aipatzen du Gipuzkoako garapen ekonomiko eta sozialaren eredua denboran zehar eraiki dela, Gipuzkoako gizartearen lidergo-gaitasunean, bizitasunean eta lankidetzarako prestasunean oinarrituta.

Etorkizuna Eraikizen helburua da guztiok elkarrekin Gipuzkoako lurraldeak etorkizunean izango dituen erronkak hautematea, horiei aurre egiteko modua diseinatzea, ingurune errealetan ezar litezkeen erantzunak esperimentatzea, askotariko eragileekin lankidetzan, eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan txertatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako hausnarketa estrategikoak hipotesi konformista bat saihestu nahi du etorkizunari aurre egiteko orduan, eta Gipuzkoak etorkizunari aurre egiteko behar dituen baldintza onenak sor daitezela proposatzen du, betiere jarrera proaktibo baten ikuspegitik begira. Nolanahi ere, badakigu gizarteak aurre egin beharreko aldaketek oinarriak jarriko dituztela epe ertain eta luzeko eredu sozial eta ekonomikorako. Era berean, Foru Aldundiak Gipuzkoaren berezitasunak sendotu nahi ditu, zehazki, lehiakortasuna, sormena, erakargarritasuna, kohesio soziala eta lurralde oreka.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE ASESORÍA Y SECRETARÍA TÉCNICA PARA LA REALIZACIÓN DE INICIATIVAS PARA IMPULSAR POLÍTICAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES Y CONCILIACIÓN CORRESPONSABLE DE LA VIDA PERSONAL, FAMILIAR Y PROFESIONAL EN EL ÁMBITO LABORAL

1.- INTRODUCCIÓN

El Plan Estratégico 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, concebido como el principal instrumento para el liderazgo en la acción de gobierno de la legislatura, reconoce a la iniciativa Etorkizuna Eraikiz como su principal apuesta para responder a los retos y necesidades emergentes de Gipuzkoa, así como para abordar la construcción compartida del futuro del territorio.

Etorkizuna Eraikiz representa la manera de entender y aplicar la gobernanza abierta y cooperativa, que la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere impulsar a la hora de aplicar una nueva forma de "hacer política". Este modo de gobernanza es plenamente coincidente con "el modelo Gipuzkoa" cuyo fortalecimiento se ha marcado como reto el Plan Estratégico 2020-2023. A tal efecto, el Plan recoge que el modelo de desarrollo económico y social de Gipuzkoa se ha construido a lo largo del tiempo fundamentándose en la capacidad de liderazgo, la vitalidad y la disposición a la cooperación de la sociedad guipuzcoana.

El propósito de Etorkizuna Eraikiz es detectar colectivamente los retos futuros del territorio de Gipuzkoa, diseñar la manera de afrontarlos, experimentar posibles respuestas en entornos reales con la colaboración de distintos agentes y aplicar los resultados a las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La reflexión estratégica que impulsa la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere evitar una hipótesis conformista a la hora de afrontar el futuro y propone que desde una actitud proactiva Gipuzkoa cree las mejores condiciones para abordar su futuro. Todo ello siendo conscientes de que los cambios que afronta la sociedad guipuzcoana van a sentar las bases del modelo social y económico a medio y largo plazo. Al mismo tiempo, la Diputación Foral se propone reforzar las señas de competitividad, creatividad, atracción, cohesión social y equilibrio territorial que caracterizan a Gipuzkoa.

Ziurrenik, gizarteek ez dute beste inoiz sentitu aldatzeko presioa orain bezala, berehala eta egunero. Aldaketaren logikan murgilduta bizi gara eta, gainera, abiadura handiz gertatzen dira aldaketak, modu askotan agertzen zaizkigu, eta pertsonengan nahiz erakundeetan ikus daitezke horien eraginak.

Aldaketaren inpaktuak gogotik agertzen dira herritarrek ekonomia, hezkuntza, politika eta bestelako hainbat esparru ulertzeko, sinesteko, sentitzeko eta praktikatzeko duten moduan. Arian-arian, aldaketaren nonahikotasun horrek behin-behinekotasun eta ziurgabetasun sentsazio kezkagarria sortzen du etorkizunari dagokionez. Etorkizuna kezka da, ezezaguna da. Ez dirudi errealitate aldakor hori jarrera pasibo batez har dezakegunik, ikusle soilak izanik.

Gaur egungo egoeran, politika publikoek bizi dugun momentuaren interpretazio egokiaren emaitza izan behar dute gero eta gehiago, eta etorkizunari buruzko hausnarketaren ondorioa. Horrek eraman behar gaitu datozkigun erronken emaitzak planteatzera eta gauzak egiteko modu berriak aztertzera.

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak inpaktu horiei erantzun nahi die, etorkizunean gertatuko diren beste batzuei aurrea hartu, eta bere praktikak aldaketaren erritmo azkarrak proposatzen dizkigun erronketara egokitu, lankidetzazko gobernantza ireki baten bidez.

Nazioartean ez dago oraindik formularik etorkizun ezezagunari erantzuteko beharrezkoa den gobernantzari dagokionez. Garbi dagoena da hurbilketa eta teknika tradizionalek ez dutela balio erritmo bizian aldatzen den testuinguru gero eta konplexuago batean.

Bilaketa horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz sortu du. Jarduketa eredu honen oinarrian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromiso instituzionala dago; izan ere, agenda publikoaren hausnartze eta antolamendu estrategikoan eragile sozialen parte hartzea eta elkarlana ahalbidetzeko eta gauzatzeko konpromisoa hartu zuen.

Horretarako, Etorkizuna Eraikiz ekimenak entzuteko, eztabaidatzeko eta esperimentatzeko askotariko espazioak sortzen ditu, eta horrek guztiak adierazpen bat izateko borondatea du, lehenik eta behin, agenda publikoan, bigarrenik, politika publikoetan eta, hirugarrenik, lurraldearen etorkizuneko erronkei eta erronka estrategikoei erantzuteko gaitasun kolektiboan.

Es muy posible que, nunca como ahora, las sociedades hayan sentido la presión del cambio de una manera tan inmediata y cotidiana. No solo estamos inmersos en la lógica del cambio sino que además éste se produce a gran velocidad, y se manifiesta de muchas maneras, y sus impactos se aprecian en las personas y en las organizaciones.

Los impactos del cambio se manifiestan con todo rigor en la manera en que las personas perciben, creen, sienten y practican la economía, la educación, la política y otras muchas actividades. Esta omnipresencia del cambio va creando una inquietante sensación de provisionalidad e incertidumbre con respecto al futuro. El futuro como preocupación, como incógnita. No parece que podamos convivir con esta realidad cambiante desde una actitud pasiva, como meros espectadores.

En el entorno actual, las políticas públicas cada vez más deben ser fruto de una interpretación del momento que vivimos, y consecuencia de una reflexión sobre el futuro, lo que debe llevar a plantearse tanto las respuestas a los retos que vienen, como analizar nuevos modos de hacer las cosas.

En este sentido, la Diputación Foral de Gipuzkoa se propone responder a tales impactos, anticiparse a otros que en el futuro se producirán y adaptar sus prácticas a los desafíos que el ritmo acelerado del cambio nos va proponiendo, mediante una gobernanza colaborativa y abierta.

En el concierto internacional no existe aún una fórmula respecto a la gobernanza que se precisa para responder a los inciertos futuros. Lo que es evidente es que las aproximaciones y técnicas tradicionales no sirven en un contexto de creciente complejidad y cambio acelerado.

En esta búsqueda, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha creado Etorkizuna Eraikiz como modelo de actuación, basado en el compromiso institucional adquirido por la institución foral para hacer posible y operativa la participación y la cooperación de distintos actores sociales en la reflexión y elaboración estratégica de la agenda pública.

Para ello, Etorkizuna Eraikiz genera espacios diversos de escucha, deliberación y experimentación, con la voluntad de que todo ello tenga una expresión, en primer lugar, en la agenda pública, en segundo lugar en las políticas públicas y, en tercer lugar en la capacidad colectiva de respuesta a los retos futuros y estratégicos del territorio.

Proposatzen den gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren eredua garatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak bete behar duen baldintzetako bat da ikaskuntzarako eta berrikuntzarako gune irekiak sortzea, pertsonak eta erakundeak elkarreraginean aritzeko, elkarlanean aritzeko eta, azken batean, elkarrekin lan egiteko lekuak ahalbidetzea, erronkei aurre eginez, proposamenak sortuz, edo agenda publikoaren arazoei irtenbideak bilatuz. Beraz, ez da leku bakar bat, truke edo deliberazio egoerak ahalbidetzen dituzten leku fisiko edo birtualen batura baizik.

Etorkizuna Eraikiz eredua, funtsean, bi gune handitan oinarritzen da -Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-; horietan, lurraldeko eragileen sareak modu partekatuan eta ez hierarkikoan garatzen ditu deliberazio, proposamen eta esperimentazio jarduerak. Jarduera horiek Gipuzkoako agenda publikoan zentratzen dira, eta, berariaz, lurraldearen etorkizuneko erronkei heltzen diete, horiek identifikatu, aztertu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoen bidez ezar daitezkeen irtenbideak planteatzen saiatzeko.

Gipuzkoa Lab espazioa esperimentaziorako eta ikaskuntzarako eremua da, azken batean, Etorkizuna Eraikizen esperimentazio aktiborako laborategia. Ezagutza erabat berria ekoizteko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoak elikatu eta hobetu ditzaketen erronkei irtenbideak bilatzeko laborategia da

Lurraldeak legealdirako dituen erronka nagusiak Plan Estrategikoak ezartzen duen etorkizuneko ikuspegiarekin lotutakoak dira, honako hau adierazten duenean: «Gipuzkoak Europako desberdintasun maila txikienak dituzten pertsonen komunitatea izan nahi du».

Gipuzkoako Foru Aldundiaren apustua da komunitatea eta lehiakortasuna indartzea, berdintasunetik eta elkartasunetik abiatuta. Azken urteotan, Gipuzkoak aurrera egin du desberdintasun ekonomikoak, sozialak, lanekoak, generokoak, kulturalak, linguistikoak, mugikortasunekoak, landa munduaren eta hiri munduaren artekoak, eta abar gainditzeko bidean. Desberdintasun horiek gizartea desegituratzen dute, eta arriskuan jartzen dituzte komunitate bizikidetza, gizarte kohesioa eta lurralde oreka. Nazioartearekin konparatuta, gaur egun, Gipuzkoa posizio onean dago desberdintasunarekin lotutako adierazle nagusietan, «Gipuzkoa eredu» propio eta diferentzial baten garapenari esker. Horregatik, eta Gipuzkoa eredua etorkizuneko eraikuntza partekatuaren oinarri gisa indartzen jarraitzeko nahiagatik, lurraldeak nazioarteko erreferentzia izan nahi du eguneroko lan esparru bakoitzean dauden desberdintasun mota desberdinen aurkako borrokan.

Uno de los requisitos que la Diputación Foral de Gipuzkoa debe satisfacer para desarrollar el modelo de gobernanza abierta y colaborativa que se propone, es la creación de espacios abiertos de aprendizaje e innovación, propiciar lugares en los que personas y organizaciones diferentes interactúan, colaboran y en definitiva trabajan conjuntamente afrontando retos, generando propuestas, o buscando soluciones a los problemas de la agenda pública. No se trata por lo tanto de un solo lugar, sino de la suma de lugares físicos o virtuales que posibilitan situaciones de intercambio o deliberación.

El modelo Etorkizuna Eraikiz se apoya, básicamente, en dos grandes espacios -Gipuzkoa Taldean y Gipuzkoa Lab- en los que la red de agentes del territorio desarrolla de forma compartida y no jerárquica actividades de deliberación, proposición y experimentación. Estas actividades están centradas en la agenda pública de Gipuzkoa y, de forma específica, en abordar los retos futuros del territorio para identificarlos, analizarlos y tratar de plantear soluciones que puedan implementarse a través de las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El espacio Gipuzkoa Lab es el ámbito de experimentación y aprendizaje, en definitiva, el laboratorio de experimentación activa de Etorkizuna Eraikiz. Es el laboratorio para la producción de conocimiento radicalmente nuevo y para la búsqueda de soluciones a retos que puedan nutrir y mejorar las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Los principales retos del territorio para la legislatura son los relacionados con la visión de futuro que establece el Plan Estratégico cuando señala: *"Gipuzkoa quiere ser la comunidad de personas con menores niveles de desigualdad de Europa".*

La apuesta de la Diputación Foral de Gipuzkoa es fortalecer la comunidad y la competitividad, desde la igualdad y la solidaridad. En los últimos años, Gipuzkoa ha avanzado en la superación de las desigualdades económicas, sociales, laborales, de género, culturales, lingüísticas, en la movilidad, entre el mundo rural y el urbano, etc. que desestructuran la sociedad y ponen en riesgo la convivencia comunitaria, la cohesión social y el equilibrio territorial. La comparación internacional sitúa, a día de hoy, a Gipuzkoa en buena posición en los principales indicadores relacionados con la desigualdad, gracias al desarrollo de un "modelo Gipuzkoa" propio y diferencial. Por ello, y por el deseo de seguir fortaleciendo el modelo Gipuzkoa como base de la construcción compartida del futuro, el territorio aspira a ser una referencia internacional en la lucha contra los diferentes tipos de desigualdad que existen en cada uno de los ámbitos de trabajo diario.

Jakinda emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ez dela bakarrik gizarte baten giza garapenaren mailaren adierazle bat, baizik eta berdintasunean, erantzunkidetasunean eta kontziliazioan aurreratuen dauden herrialdeak direla emaitza onenak lortzen dituztenak ekonomian eta lurralde garapenean eta garapen zibikoan, 2016. urtean prozesu luze bat hasi zen, esku-hartzeko estrategia bat diseinatuz, beste jarduera batzuen artean, hainbat proiektu pilotu abian jartzea erraztearren. 2017an, 2018an eta 2019an jarraipena eman zitzaion prozesu horri, proiektu pilotu berriak gehituz eta esku-hartze estrategia osatzen duten elementuetan sakonduz. Esperientzia horietatik abiatuta, jarduera estrategia bat modelizatu eta zehaztu nahi da, Gipuzkoako enpresen tipologiara egokituta, enpresetan berdintasun politikak ezartzea erraztearren. Horren erakusgarri ona da kontziliazio erantzunkidearekin konprometituta dauden Gipuzkoako enpresen Erantzunkide sarea eratzea.

Desde el convencimiento que la igualdad de hombres y mujeres no sólo constituye un indicador del nivel de desarrollo humano de una sociedad, sino que los países más avanzados en materia de igualdad, corresponsabilidad y conciliación son los que alcanzan mejores resultados de desempeño económico y desarrollo territorial y cívico, el año 2016 se inició el largo proceso en el que mediante el diseño de una estrategia de intervención se facilitase, entre otras actuaciones, la puesta en marcha de una serie de proyectos piloto. En 2017, 2018 y 2019 se dio continuidad a este proceso, incorporando nuevas experiencias piloto y profundizando en los diferentes elementos que integran la estrategia de intervención, de la que la constitución de la red Erantzunkide de empresas de Gipuzkoa comprometidas con la conciliación corresponsable constituye una buena muestra.

2020. urtean jarraipena eman zitzaion prozesu horri, alderdi hauetan arreta jarriz: esperientzia pilotu berriak egitea; datozen urteetako jardueretarako sentsibilizazioa eta erakartze lana burutzea; esku-hartzeak normalizatu eta estandarizatzea, laguntzeko tresnak eta materialak diseinatuz; hedapen eta komunikazio lanak egitea; proiektu pilotuen jarraipena egitea; berdintasun neurriak aplikatzen «lider» den enpresa sare bat sortzeko ahalmena balioestea; ikasitakoak bateratzea; eta abar.

En 2020 se continuó con este proceso, incidiendo en los siguientes aspectos: realización de nuevas experiencias piloto, sensibilización y trabajo de captación para actuaciones en los próximos años, normalizar y estandarizar las intervenciones con el diseño de herramientas y materiales de apoyo, realización de tareas de difusión y comunicación, tareas de seguimiento de los proyectos piloto, valorar el potencial de creación de una red de empresas "líder" en la aplicación de medidas por la igualdad, puesta en común de aprendizajes...

2021ean jarraipena eman nahi zaio lan horri, baina berezitasun batekin: esperientzia pilotu berriak Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak deituko dituen laguntzen deialdiaren esparruan egingo dira.

En 2021 se quiere dar continuidad a este trabajo, con la particularidad de que la realización de las nuevas experiencias piloto se realizarán en el marco de la convocatoria de ayudas que se van a convocar desde el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

Idazkaritza tekniko honen laguntzarekin, jarduerak koordinatu eta sistematizatzeko lanak egingo dira, azken urteotan definitutako eskuhartze eredura egokitu daitezen. Beraz, urte honetan bertan trantsizio fase bat hasten da, Gipuzkoako proiektu esperimentaletik departamentu eskudunaren politika publikoetan sartzeraino.

Con el apoyo de esta secretaría técnica se realizarán las labores de coordinación y sistematización de las actuaciones, para que las mismas se acomoden al modelo de intervención definido en estos últimos años. Por tanto, ya en este año se inicia una fase de transición desde el proyecto experimental de Gipuzkoalab a su incorporación a los políticas públicas del departamento competente.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da aholkularitza eta idazkaritza teknikoko zerbitzuak kontratatzea, alde batetik, proiektu pilotuetatik lortutako ikaskuntzak sakontzea eta partekatzea ahalbidetuko duten ikerketa eta hausnarketa ekimenak egiteko, eta, bestetik, diseinatutako eskuhartze eredua sendotzea ahalbidetuko duten jarduerak egiteko, etorkizunean Foru Aldundiaren programen bidez zabaldu ahal izateko.

Por todo ello, se considera necesario contratar los servicios de asesoría y secretaría técnica para, por un lado, realizar iniciativas de investigación y reflexión que permitan profundizar y compartir los aprendizajes obtenidos de los proyectos pilotos, y, por otro, realizar aquellas actuaciones que permitan consolidar el modelo de intervención diseñado, para poder extenderlo en el futuro a través de los programas de la Diputación Foral.

2. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea aholkularitza eta idazkaritza teknikoko zerbitzuak kontratatzea da, Gipuzkoako enpresetan berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea indartzeko eta sustatzeko, zeharkako ikuspegi batetik, departamentu artekoa, GFAren lankidetzako gobernantza estrategiaren ildotik, eta, azken batean, Erantzunkide sarea/ekosistema indartzeko, honako jarduera-ildo osagarri eta interkonektatu hauek jasotzen dituena:

1. Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategiak eta politikak garatzeko ematen dituen enpresentzako berariazko laguntzen jarraipena, laguntza eta ebaluazioa.

2. Erantzunkide sarea indartzea:

   □ Erantzunkide ekosisteman emakumeen eta gizonen berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea bultzatzea, ikaskuntza espazioak garatuz, bai eta sareko enpresekin ekimen esperimental espezifikoak ere, enpresen arteko esperientzien trukea errazteko eta sare osoari irtenbide interesgarriak proposatzeko.

   □ Berdintasunaren eta kontziliazio erantzukidearen bertuteak hedatzeko balioko duen urteko ekitaldi bat antolatzea, praktika onak hedatzeko, adituak parte hartzeko eta esperientzia arrakastatsuak partekatzeko.

   □ Kanpoko harremanen eta ikaskuntzen ekosistema bat sortzea/garatzen jarraitzea. Enpresetan berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea lantzen dituzten erakundeen eta proiektuen prospekzioa, batez ere ETEak nazioarte mailan, autonomia-erkidegoan eta abarretan. Ikaskuntza-trukea.

3. Beste ekintza eta ekimen batzuekiko elkarreragina/sinergiak. BKE Proiektu Esperimentalak, lankidetzaren ikuspegitik, loturak eta interakzio-espazioak ezarri behar ditu, berdintasunarekin lotutako GFAko beste sail batzuek sustatutako ekintza eta ekimenetan lortzen ari diren aurrerapenak, emaitzak eta ikaskuntzak

2. OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto del contrato es la contratación de los servicios de asesoría y secretaría técnica para fortalecer y promover la igualdad y la conciliación corresponsable en las empresas de Gipuzkoa, desde una mirada transversal, interdepartamental, en línea con la estrategia de gobernanza colaborativa de la DFG, y que contempla las siguientes líneas de actuación complementarias e interconectadas para, en definitiva, fortalecer la red/ecosistema Erantzunkide:

1. El seguimiento, apoyo y evaluación de las ayudas específicas a las empresas que desde el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural se concedan para desarrollar estrategias y políticas de igualdad de mujeres y hombres.

2. Fortalecer la red Erantzunkide:

   □ Impulsar la igualdad de mujeres y hombres y la conciliación corresponsable en el ecosistema Erantzunkide, desarrollando espacios de aprendizaje, así como iniciativas experimentales específicas con empresas de la red para facilitar el intercambio de experiencias inter-empresas y proponer posibles soluciones de interés al conjunto de la red.

   □ Organización de un evento anual que sirva para difundir las virtudes de la Igualdad y la Conciliación Corresponsable, se difundan buenas prácticas, participen personas expertas y experiencias de éxito.

   □ Crear/seguir desarrollando un ecosistema de relaciones y aprendizajes externos. Prospección de instituciones y proyectos que trabajan la igualdad y la conciliación corresponsable en las empresas, principalmente PYMEs a nivel internacional, autonómico, etc. Intercambio de aprendizajes.

3. Interacción/ sinergias con otras acciones e iniciativas. El Proyecto Experimental BKE (Berdintasuna eta Kontziliazioa Erantzunkidea), desde su enfoque colaborativo, debe establecer las conexiones y los espacios de interacción pertinentes que posibiliten incorporar y compartir los avances, resultados y

txertatzeko eta partekatzeko.

3. EGIN BEHARREKO LANAK.

Helburu horiek lortzeko, proposamenak alor eta jarduera hauek jaso beharko ditu gutxienez:

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin konprometituta dauden Gipuzkoako enpresek osatzen duten Erantzunkide Sarea dinamizatzea.

- Ikaskuntza espazioak garatzen jarraitzea Berdintasuna eta Kontziliazioa ekimenaren aurreko edizioetan parte hartu duten eta Erantzunkide sareko kide diren enpresekin.

- Erantzunkide enpresa sarea dinamizatzea.

2. Esperientzia pilotuko fase berri bat abiaraztea enpresetan.

- Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren deialdiaren esparruan garatzen diren jarduera eta esperientzia pilotuak koordinatu eta sistematizatzeko lanak.

- Sentsibilizazio saioak antolatzea enpresekin, batez ere ETEekin, erakundeetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta kontziliaziorako neurriak praktikan jartzearen garrantzia sustatzeko.

- Enpresa horiei aholkularitza emateko oinarrizko zerbitzu bat abian jartzea, erakundean BK metodologia ezartzeko.

3. Gipuzkoako enpresa berriak sustatzea eta erakartzea lehenengo urratsak ematen has daitezen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta kontziliazio erantzunkidearen aldeko ekimenaren esparruan.

- Loturak ezartzea erantzunkideren antzeko eredu eta esperientzietan lan egiten duten erakunde eta eragileekin.

4. Ekimenaren gobernantza-eredua egokitzen jarraitzea, aurreko faseetako ikaskuntzetatik abiatuta eta Foru Aldundiaren eta beste erakunde

aprendizajes que se están obteniendo en acciones e iniciativas promovidas por otros departamentos de la DFG vinculadas a la igualdad.

3. TRABAJOS A REALIZAR.

Para el logro de dichos objetivos, la propuesta deberá contemplar como mínimo las siguientes áreas y actuaciones:

1. Dinamización de la Red Erantzunkide formada por empresas guipuzcoanas comprometidas con la igualdad de mujeres y hombres.

- Continuar desarrollando espacios de aprendizaje con las empresas que han participado en las ediciones anteriores de Berdintasuna eta Kontziliazioa Erantzunkidea y pertenecen a la red Erantzunkide.

- Dinamizar la red de empresas Erantzunkide.

2. Nueva fase de experiencias piloto en las empresas.

- Labores de coordinación y sistematización de las actuaciones y experiencias piloto que se desarrollen en el marco de la convocatoria del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

- Organizar sesiones de sensibilización con empresas, principalmente PYMEs, para ir fomentando la importancia de poner en práctica medidas de igualdad y conciliación de mujeres y hombres en las organizaciones.

- Poner en marcha un servicio básico de asesoramiento a estas empresas en la implementación de la metodología BKE en la organización.

3. Promoción y captación de nuevas empresas guipuzcoanas para que comiencen a dar los primeros pasos en el marco de la iniciativa a favor de la igualdad de mujeres y hombres y la conciliación corresponsable.

- Establecer conexiones con entidades y agentes que trabajan en modelos y experiencias cercanas a Erantzunkide.

4. Continuar adaptando el modelo de gobernanza de la iniciativa, a partir de los aprendizajes de las fases anteriores y mediante el contraste y recogida

batzuen beste ekimen batzuen ekarpenak kontrastatuz eta jasoz.

5. Sinergiak ezartzea Ekonomi Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua garatzen ari den beste jarduera eta proiektu esperimental batzuekin, eta, hala badagokio, horien integrazioa bilatzea.

6. Beste zeregin batzuk:

- Jarduerak, materialak eta baliabideak diseinatu eta prestatzea ekimena hedatzeko, komunikatzeko eta ikusarazteko.
- Ikaskuntzak trukatzeko eta nazioarteko beste esperientzia batzuekin konektatzeko balio duten ekitaldiak antolatzea.
- Idazkaritza teknikoari dagozkion zereginak egitea proiektu pilotuak ezartzeko koordinazio esparruan, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiak ez badu bere gain hartzen haien kudeaketa.

4. LANEKO METODOLOGIA.

Proposamena, bat datorrena Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako gobernantza eredu berriak bultzatzearekin, elkarlaneko lidergo prozesu baten barruan sartu behar da eta, halaber, eraginkortasuna eta efizientzia bilatu behar ditu. Horretarako, alderdi hauen garapena aurreikusiko du gutxienez:

1. Estrategiak diseinatzea foru mailan departamentuen arteko lana egiteko, bereziki bultzatuz ekonomiaren sustapenaren ardura duen departamentuaren inplikazioa.

2. Gipuzkoako gizarte antolatuan bultzada-gaitasuna duten eragile publiko eta pribatuen partaidetza bideak diseinatzea.

3. Ezarritako helburuak betetzeko gauzatu behar diren proiektu zehatzak proposatzea eta identifikatzea.

de aportaciones de otras iniciativas de la Diputación Foral y de otras instituciones.

5. Establecer sinergias con otras actuaciones y proyectos experimentales que se están desarrollando desde el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y, en su caso, buscar su integración.

6. Otras tareas:

- Diseño y preparación de actuaciones, materiales y recursos para la difusión, comunicación y visibilización de la iniciativa.
- Organizar eventos que sirvan para el intercambio de aprendizajes y la conexión con otras experiencias a nivel internacional.
- Realización de las tareas correspondientes a la secretaría técnica en la coordinación de la implantación de los proyectos piloto, en tanto en cuanto la gestión de los mismos no sea asumida por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

4. METODOLOGIA DE TRABAJO.

La propuesta, en línea con el impulso de nuevos modos de gobernanza propuesto por la Diputación Foral de Gipuzkoa, debe enmarcarse en un proceso de liderazgo colaborativo, al tiempo que debe buscar la eficacia y eficiencia en las propuestas. A tal efecto, deberá incluir, como mínimo, el desarrollo de los siguientes aspectos:

1. Diseñar las estrategias para el trabajo interdepartamental a nivel foral, impulsando especialmente la implicación del departamento responsable de la promoción económica.

2. Diseñar los canales de participación de los agentes públicos y privados con capacidad tractora que integran la sociedad organizada de Gipuzkoa.

3. Proponer e identificar proyectos y estrategias concretas que den respuesta a las metas fijadas.

Donostia, 2021eko apirilaren 23a / San Sebastián, 23 de abril de 2021

Goi-mailako ekonomialaria

Sin./Fdo.: Iker Nocedal Bustamante